

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Administrazio elektronikoa arautzen duen ordenantzaren hasierako onarpena

Amurrioko Udalaren administrazio elektronikoa arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaien, Udalbatzak 2024ko martxoaren 26an hartutako erabakiaren bidez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluekin eta Toki Araubidearen Testu Bateginaren 56. artikuluekin bat etorritik, jendaurrean jartzen da 30 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe horretan, edozein interesdunek aztertu ahal izango du Amurrioko Udalaren bulegoetan, egoki irizitako alegazioak aurkez daitezten. Halaber, interesdunen eskura egongo da Amurrioko Udalaren iragarki-taula elektronikoa: [https://udalnegoitza.araba.eus/portal/noEstatica.do?opc\\_id=268&ent\\_id=4&idioma=3](https://udalnegoitza.araba.eus/portal/noEstatica.do?opc_id=268&ent_id=4&idioma=3).

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aipatutako ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

Amurrio, 2024ko apirilaren 18a

*Alkatea*

TXERRA MOLINUEVO LAÑA